



Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Kutsadura hegan dator

Egoera:

Masa-turismoak eragiten duen kutsadura gero eta arazo larriagoa da, zenbait adituren ustez. Horri muga jarri nahian, hegazkinek sortzen dutena gutxiagotzea da proposatzen den neurrietako bat.

Eginkizuna:

Talde ekologista baten izenean, egunkarirako artikulua idatzi, xede izanik ohartaraztea masa-turismoak sortzen duen kutsadura handiaz eta, hori arintzearen, bidaia-modu jasangarriak proposatzea. Horien barruan hegaldiak sortzen duten kutsadura mugatzea da proposatzen duzuen neurrietako bat.

Lagungarriak:

- Bidaiariko eta kilometroko, hegazkinak trenak baino 20 bider karbono dioxido (CO₂) gehiago isuri, eta autoak halako bi.
- Egun, gurean bost aireportu daude, eta biztanleko dentsitate altu xamarra da hori; Alemanian, Frantzia, Belgikan edota Espainian bertan baino altuagoa.
- Alemaniako Berdeak alderdi politikoak honako neurri hau jarri nahi du indarrean: pertsona bakoitzak, gehienez, hiru hegaldi egin ahal izatea urtean.
- Badira turismoa egiteko eta bidaiatzeko modu jasangarriagoak.



2. gaia: Kirol-apustuak

Egoera:

Krisia hasi zenetik, izugarri hazi dira Internet bidezko kirol-apustuak eta apustu-etxeak. Ikerketen arabera, gazteei eragiten diete bete-betean. Askorentzat eguneroko miseriatik ihes egiteko modua da jokoak, baina areago hondoratzen ditu. Zure auzoan ere bizi duzue egoera hori.

Eginkizuna:

Auzoan kontzientzia piztu nahian, idatzi gutuna auzo-elkarteko kideen izenean, gero etxez etxe banatzeko. Idatzi horretan, nabarmendu arazoaren larritasuna eta ekar ditzakeen ondorioak; salatu errudunak eta azaldu zer-nolako ekimenak bultzatu nahi dituzuen herrian arazoari aurre egiteko.

Lagungarriak:

- Teknologia berriei esker, apustua eskuragarriago.
- Apustua erakargarriago, futbolari eta kirolen zirrarrari lotua.
- Kirol-talde profesional gehienetan, apustu-etxe baten ikurra elastikoan.
- Mendekotasuna, prekaritatea...
- Administrazioaren erantzukizuna, jokoaren publizitatea, kontrol-neurriak...



EUSKARAGARA.NET

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Botoa emateko adina: 16 urte

Egoera:

Gazte-talde bateko kideok uste duzue baduzuela politika-gaietan zer esana eta zuen ikuspuntua aintzat hartzea garrantzitsua dela. Horretarako, ezinbestekoa ikusten duzue 16 urtetik gorakoei botoa emateko eskubidea aitortzea. Herritarren artean kontzientzia piztu nahian, artikulua idaztea erabaki duzue.

Eginkizuna:

Taldearen izenean, idatzi iritzi-artikulua egunkarian. Bertan, defendatu gazteok politikan parte hartzeko duzuen eskubidea; adierazi horretarako zein oztopo aurkitzen dituzuen; eta arrazoitu zer dela-eta jaitsi beharko litzatekeen botoa emateko adina 16 urtera.

Lagungarriak:

- 16 urterekin lan-kontratua, zergak ordaindu, ikuspuntu penaletik zigorrak jaso...
- Erabaki politikoetan parte hartzeko bidea ireki.
- Gazteek ikuspegi eta gai berriak ekarriko dituzte politikara.
- Oraingo politika-ereduak gazteak boteretik urrundu.
- Hainbat herrialdetan bozka dezakete 16 urtetik gorakoek: Austrian, Eslovenian, Argentinan, Brasilen...



2. gaia: Patinete elektrikoak bidegorrian?

Egoera:

Gero eta patinete elektriko gehiago ibiltzen dira Euskal Herriko herri eta hirietan. Zure herriko udalak horien erabilera arautzeko behin-behineko neurriak hartu ditu: debekatu egin du horrelako ibilgailuak espaloian ibiltzea; bidegorria erabili beharko dute orduko gehienez 25 kilometroko abiadura hartzen dutenek, eta hortik gorako abiadura hartzen dutenek errepidea erabili beharko dute.

Eginkizuna:

Herriko txirrindularien elkartearen izenean, idatzi gutun bat gaiaz arduratzen den udaleko arduradunari, xede izanik azaltzea patineteak bidegorrietan sartzeak zein egoera eragiten duen, egoeraren ondorioez ohartaraztea eta proposamenak egitea.

Lagungarriak:

- Bidegorriak bizikletaren erabilera sustatzeko.
- Bidegorrietan, orain arte, bizikletak eta motorrik gabeko patineteak.
- Ibilgailu-mota asko, bizikidetzeta, sedentarismoa...
- Bidegorriko arauak, gehieneko abiadura errespetatzea, isunak.



Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Nola biziko gara 50 urte barru?

Egoera:

Zure udalerrian iritzi-artikuluen lehiaketa bat antolatu dute. Antolatzaileen helburua da gure gizarteak etorkizunean ezagutuko dituen aurrerapen nagusien eta aurre egin beharreko erronken inguruan eztabaida piztea eta hausnarketa eragitea. Hona gaia: Nola biziko gara 50 urte barru?

Irabazleak diru-saria jasoko du eta, horrez gain, artikulua herriko aldizkarian argitaratuko dute.

Eginkizuna:

Idatzi lehiaketarako artikulua, helburu izanik eztabaida piztea eta hausnarketa eragitea. Bertan, gaiari buruzko ikuspegi orokorra emateaz gain, honako arlo nagusietako bat jorratu, gutxienez:

- Zientzia eta teknologia
- Ingurumena
- Gizarte-eredua

Lagungarriak:

- Klima-aldaketa, natura-baliabideak agortzea...
- Robotak eta adimen artifiziala, medikuntza-aurrerapenak...
- Jaiotza-tasa eta bizi-itzaropena, aberastasunaren banaketa...



2. gaia: Eskolarteko futbola eta indarkeria

Egoera:

Zure seme-alaben eskolan gertatu da, aurreko larunbatean: umeen arteko futbol-partidan, gurasoetako batek arbitroari irain egin eta lepotik heldu dio, eta udaltzainek joan behar izan dute. Gertaerak zer pentsatua eman dizu eta guraso guztiei gutuna idaztea erabaki duzu, eskolako futbol-taldearen arduraduna baitzara.

Eginkizuna:

Eskolako futbol-taldearen arduraduna zaren aldetik, idatzi gutuna jokalarien gurasoei. Bertan, salatu zenbait gurasok jokalariekin nahiz arbitroarekin izaten duten jokaera; adierazi zein diren eskolarteko futbol-txapelketen helburuak eta kiroltasunaren balioak; eta proposatu arazoari aurre egiteko neurriak.

Lagungarriak:

- Zaletasuna, parte-hartzea sustatu.
- Adiskideen eta familien arteko harremanak estutu.
- Irabaztea pozgarria, ez helburu nagusia.
- Talde-lana, integrazioa, arauak errespetatzea, galtzen ikastea...
- Helduak haurren eredu, on eta txar.



EUSKARAGARA.NET

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Zenbat eta zabor gutxiago, hobe

Egoera:

Herritarrek sortzen duten zabor-kopuru handiak kostu ekologiko eta ekonomiko handia dakar, eta horrek berebiziko kezka eragiten dizue Ekogarbi talde ekologistako kideoi. Hori dela eta, zaborraren kudeaketa arduratsuaren aldeko kanpaina abiaraztea erabaki duzue herrian.

Eginkizuna:

Ekogarbi talde ekologistaren izenean, idatzi iritzi-artikulua eskualdeko aldizkarian, xede izanik kontsumo-gizartearen eta sortzen dugun zabor-kopuruaren arteko lotura nabarmentzea, gehiegizko zaborrak eragiten dituen kalte ekologiko eta ekonomikoez ohartaraztea, eta herritarrei aholkuak ematea, birziklapena eta berrerabilpena sustatzea helburu.

Lagungarriak:

- Erabili eta bota, horra kontsumo-gizartearen leloa.
- Egunero 1,5 kilo zabor baino gehiago sortzen dugu pertsonako.
- Zaborrak duen balio material eta energetikoari probetxua atera behar.
- Zaborra gutxitzeko bideak: gutxiago sortu, birziklatu, berrerabili.
- Zaborra bereizi. Zein bere edukiontzira bota.



2. gaia: Jaiegunetan ere zabalik

Egoera:

Zure herriko udal-agintariek adierazpenak egin dituzte herriko saltokiak igande eta jaiegunetan ere zabaltzearen alde. Haien esanetan, herriaren kanpo-irudirako ez da komeni turistek dendak itxita aurkitzea, eta gaineratu dute, dendak zabalduz gero, lanpostu gehiago sortuko liratekeela. Herriko merkataritxi txikien elkartean, ordea, ez zaudete udal-agintarien iritziarekin batere ados.

Eginkizuna:

Herriko merkataritxi txikien elkarteko kidea zaren aldetik, idatzi gutuna alkateari. Bertan, adierazi desadostasuna agintarien proposamenarekin; azaldu zein lan-egoera duzuen dendariok; eta, udal-agintarien argudioei kontra eginez, arrazoitu zergatik ez liratekeen saltokiak jaiegunetan zabaldu behar.

Lagungarriak:

- Merkataritxi txiki asko eta sindikatuak, aurka; denda handien jabe asko, alde.
- Kostuak irabaziak baino handiagoak?
- Turistek ez dute asko kontsumitzen, bizilagunek astegunetan eros dezakete...
- Lana eta familia-bizitza bateratzea, aisialdia, aparteko ordurik ez egitea...
- Salbuespenik egiteko prest? Gabonetan, merkealdi-garaian...



5. eredua

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Kutsadura hegan dator

Egoera:

Masa-turismoak eragiten duen kutsadura gero eta arazo larriagoa da, zenbait adituren ustez. Horri muga jarri nahian, hegazkinek sortzen dutena gutxiagotzea da proposatzen den neurrietako bat.

Eginkizuna:

Talde ekologista baten izenean, egunkarirako artikulua idatzi, xede izanik ohartaraztea masa-turismoak sortzen duen kutsadura handiaz eta, hori arintzearen, bidaiia-modu jasangarriak proposatzea. Horien barruan hegaldiek sortzen duten kutsadura mugatzea da proposatzen duzuen neurrietako bat.

Lagungarriak:

- Bidaiariko eta kilometroko, hegazkinak trenak baino 20 bider karbono dioxido (CO₂) gehiago isuri, eta autoak halako bi.
- Egun, gurean bost aireportu daude, eta biztanleko dentsitate altu xamarra da hori; Alemanian, Frantzia, Belgikan edota Espainian baino altuagoa.
- Alemaniako Berdeak alderdi politikoak honako neurri hau jarri nahi du indarrean: pertsona bakoitzak, gehienez, hiru hegaldi egin ahal izatea urtean.
- Badira turismoa egiteko eta bidaiatzeko modu jasangarriagoak.



2. gaia: Patinete elektrikoak bidegorrian?

Egoera:


Gero eta patinete elektriko gehiago ibiltzen dira Euskal Herriko herri eta hirietan. Zure herriko udalak horien erabilera arautzeko behin-behineko neurriak hartu ditu: debekatu egin du horrelako ibilgailuak espaloian ibiltzea; bidegorria erabili beharko dute orduko gehienez 25 kilometroko abiadura hartzen dutenek, eta hortik gorako abiadura hartzen dutenek errepidea erabili beharko dute.

Eginkizuna:

Herriko txirrindularien elkartearen izenean, idatzi gutun bat gaiaz arduratzen den udaleko arduradunari, xede izanik azaltzea patineteak bidegorrietan sartzeak zein egoera eragiten duen, egoeraren ondorioez ohartaraztea eta proposamenak egitea.

Lagungarriak:

- Bidegorriak bizikletaren erabilera sustatzeko.
- Bidegorrietan, orain arte, bizikletak eta motorrik gabeko patineteak.
- Ibilgailu-mota asko, bizikidetz, sedentarismoa...
- Bidegorriko arauak, gehieneko abiadura errespetatzea, isunak...



6. eredua

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Klima-larrialdiak, etorkizuna kolokan

Egoera:

Klima-aldaketa mehatxu handia izan arren, CO₂ isurketak inoizko handienak izan dira 2019an. Etorkizunarekin kezkatuta, protestak ugartzen ari dira herrialde askotako gazteen artean; haserre daude, euren belaunaldia delako ondorioak jasoko dituen. Unibertsitateko gazteek ere talde bat sortu duzue, protestekin bat egiteko.

Eginkizuna:

Taldearen izenean, idatzi artikulua unibertsitateko aldizkarian. Bertan, azaldu zein diren protesta egiteko arrazoiak; ohartarazi arazoaren larritasunaz; eta proposatu ekintzak, dela presio egiteko, dela klima-aldaketaren ondorioak arintzeko.

Lagungarriak:

- Gazteak antolatzen ari zarete presio-ekintzak: ikasleen grebak, manifestazioak...
- Nazio Batuen Erakundearen aurreikuspena: berotegi-efektuzko gasak % 50 gutxitu behar 2030erako.
- Ingurumenean eragina: glaziarrak, itsas maila, tenperatura, heriotzak...
- Erregaiak, garraioa, garapen-eredua...



2. gaia: Kirol-apustuak

Egoera:

Krisia hasi zenetik, izugarri hazi dira Internet bidezko kirol-apustuak eta apustu-etxeak. Ikerketen arabera, gazteei eragiten diete bete-betean. Askorentzat eguneroko miseriatik ihes egiteko modua da jokoa, baina areago hondoratzen ditu. Zure auzoan ere bizi duzue egoera hori.

Eginkizuna:

Auzoan kontzientzia piztu nahian, idatzi gutuna auzo-elkarteko kideen izenean, gero etxex etxe banatzeko. Idatzi horretan, nabarmendu arazoaren larritasuna eta ekar ditzakeen ondorioak; salatu errudunak eta azaldu zernolako ekimenak bultzatu nahi dituzuen herrian arazoari aurre egiteko.

Lagungarriak:

- Teknologia berriei esker, apustua eskuragarriago.
- Apustua erakargarriago, futbolari eta kirolen zirrarrari lotua.
- Kirol-talde profesional gehienetan, apustu-etxe baten ikurra elastikoan.
- Mendekotasuna, prekaritatea...
- Administrazioaren erantzukizuna, jokoaren publizitatea, kontrol-neurriak...



Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**.

1. gaia: Txertoa jartzea, prebentziorik onena

Egoera:

Zure seme-alaben ikastetxean elgorri-kasu bat atzeman dute. Gurasoen artean zabaldu den informazioaren arabera, gaixotasun horren aurka txertatuta ez zegoen haur batek garatu du gaitza.

Eginkizuna:

Idatzi gutun irekia ikastetxeko guraso-elkartearen blogean, beren haurrari txertoa ez jartzea erabaki duten gurasoei. Bertan, adierazi desadostasuna hartu duten erabakiarekin; haurrak txertatzearen aldeko argudioak eman; eta, azkenik, proposamenak egin, egoera errepika ez dadin.

Lagungarriak:

- Legeak ez du umeak txertatzera derrigor-tzen, azken hitza gurasoena.
- Osasun publikoko arazoa, elgorri-kasuen gorakada Europan.
- Gaixotasun infekzioso asko prebenitzeko bidea: elgorria, polioa, barizela, hepatitisa, difteria, tetanosa...
- Biztanleriaren mugikortasuna, gurean desagerrarazitako gaixotasunak kutsatzeko arriskua.
- Informazio-kanpainak, bilerak, hitzaldiak...



2. gaia: Etxepekoen arteko gorabeherak

Egoera:

Atariko etxejabeen bilera egin zenuten atzo. Besteak beste, aurrerantzean komunitateko kontuak ETXONA enpresak eramango dituela erabaki zen. Horrez gain, bi urtetan kuota-rik ordaindu ez duen etxejabearen kasua izan zenuten aztergai. Bizilagun batzuek epaitegira jo nahi dute, eta beste batzuek ez.

Eginkizuna:

Presidente gisa, idatzi gutuna ETXONAKo arduradunari. Azaldu egoera eta aurreratu epe laburrerako ezohiko gastuak zein diren ere. Eman informazioa ordaintzen ez duen bizilagunaz: zenbat zor duen, nola heldu den egoera horretara, zeuek zer pauso eman duzuen... Adierazi epaibidearen aldeko eta kontrako auzokideen argudioak, eta arrazoitu zeu norekin zauden.

Lagungarriak:

- Zorrak ordainarazteko enpresak, zordunen zerrendak, bitartekaritza-zerbitzuak (Eusko Jaurlaritzaren Bizilagun programa).
- Bizilagunen bilerak: parte hartzea, gaiak, bozketak...
- Betiko auzokidea epaitegira? Bide bakarra? Eta epaiketa-gastuak?
- Krisia, langabezia, zailtasun ekonomikoak...
- Komunitateko kontu-korrontean diru gutxi, ez ohiko gastuak (teilatua berritu, igogailua...).
- Eraikinean lanean aritzen diren konfiantzazko enpresen zerrenda.

